



Herenegun aurkeztu zuten egitasmoa Euskara Mahaiko kideek eta Behatokiko Paul Bilbaok (erdian, eserita). N. URANGA

Hizkuntza eskubideen urraketak salatzeako kanpaina abiatu dute

Euskara » Herritarrek hizkuntza eskubideen urraketak salatzeako hainbat kutxa jarriko dute udal eraikinetan

NEREA URANGA

Azpeitiko Udalak, Uema eta Behatokiarekin elkarlanean, hizkuntza eskubideen urraketak salatzeako kanpaina jarri du martxan herrian. Aste honetan bertan, hizkuntz eskubideen inguruko kexak, galderak eta iradokizunak egiteko kaxak jarriko dituzte herrian. Kaxak, Udalak bere iradokizun postontziak jarrita dituen tokietan jarriko dituzte; udaletxean, igerilekuan, kiroldegian, liburutegian eta Euskara Patronatuan. Azpeitiko Udalak, Udaleko Euskara Mahaiaren «erabateko adostasunarekin» jarriko du martxan egitasmoa.

Herenegun arratsaldean aurkeztu zuten kanpaina, Udal Euskara Patronatuan, Euskara Mahaiko kideek eta Paul Bilbaok Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendariak.

Orain dela bi urte UEMAK eta Behatokiak elkarlanareko hitzarmen bat sinatu zuten. Horren arabera, besteak beste, Uemak bere herrietan herritarrek hizkuntza eskubideen inguruko urraketak salatzeako gonbidatzeako kanpainak abian jartzeako konpromisoa hartu zuen besteak beste. «Ordutik, Uemako herrietan kutxen egitasmoa deituta abian jartzen ari dira udalak. Eta asko dira herri horietatik jasotzen ari garen salaketak», esan du Bilbaok.

Aukera herrira ekarrita

Kanpainaren helburu nagusia, Azpeitian eta herritik kanpo herritarrek euskaldun bezala bizi nahi izateagatik dituzten eskubide urraketak salatzea da. «Izan ere, oraindik asko dira euskaldunak baztertzeko gaituzten tokiak eta eragileak: medikuaren kontsultan gaztelaniaz hitz egiteko eskatzen digutenean; informazio komertziala erdera hutsez bidaltzen digutenean; hainbat informazio euskaraz eskatu eta trabak jartzen dizkigutenean...».

Azpeitiko Udalak egitasmoarekin bat egin duenez, hemendik aurrera herritarrek herrian bertan aukera izango dute, kutxa horien bidez, salaketak egiteko, merezi duenari zorianak emateko edota zalantzaren bat izanez gero hori argitzeko.

Kutxa edo kaxen ondoan inprimakiak ere jarriko dituzte. Eta, ke-

xak, zorianak edo iradokizunak bideratzeko orduan inprimaki horietako bat bete beharko du herritarrek, «inprimakia betetzeko simplea» da.

Ondoren, kutxetan bildutako inprimakiak Hizkuntza Eskubideen Behatoki bideratuko dituzte, «kexa behar den tokira helarazteko». Kexa jartzeak, norberaren datuak eman behar dira, baina bai Uemak eta bai Behatokiak «datu horiek in konfidentzialtasun osoz jokatu dute». Hau da, Datuen Babesaren Legeari jarraituz, inori ez diote emango kexa jartzen duenaren daturik. Ondoren, Behatokiak herritarrekin harremanetan jarriko dira, bere espedientearekin zer egin duten azaltzeko. «Hizkuntza eskubideen egoeraren diagnosis egiterakoan, gure azterketak herritarren eskubideen urraketetan oinarritzen baita», esan du Behatoki zuzendariak.

Beste bideak

Baina, salaketa, zoriona edo iradokizuna bideratzeko beste bide batzuk ere badaude, Paul Bilbaok azaldu duenez: Behatokiaren webgunearen bidez (www.behatokia.org) edota Euskararen telefonora deituta (902194332). Behatokiak 2001ean jarri zuen martxan Euskararen telefonoa, eta zortzi urte hauetan 8.000 txosten baino gehiago jaso dituzte.

Martxan jarri duten egitasmo berri honekin Euskara Mahaikak herritarren hizkuntz eskubideen urraketan aurrean «jarrera aktiboa» hartu du, eta herritarrek ekimenaren parte hartzea deitu dituzte. «Banaka egiten dugun apur horrek emaitza handiak ekar ditzakeela sinisten dugulako», esan du Arantxa Isart Euskara Mahaiko kideak.

Laburrak

Mendiko federatu txartela ateratzeko epea irekita

KIROLA » Lagun Onak Mendizale Bazkunak azaldu duenez, 2010erako mendiko federatu txartela eskatzeko epea zabaldu dute. Aurrengo aldir federatu behar dutenek edota lehengo federazio txartelean aldaketaren bat egin nahi dutenek Luba Aholkularitza (Enparan kalea 45) jo beharko du, hilaren 31 baino lehen. Lubaren bulegoa astelehenean ostegunera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta ostiralean 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egoten da zabalik. Bestela, hango telefono zenbakira deitu daiteke: 943157525.

Gaur, Olazko ermitan hainbat elizkizun izango da

GIZARTEA » Gaur, 17:00etan, Olazko Amaren ermitan Errosario Santua errezatuko dute eta Hitzaren Liturgia ospatuko dute, Azpeitiko Parrokiatik iragarri dutenez, «beti bezala, ospakizun honetan bildu nahi duten guztiak gonbidatuta daude».

30 urrestildar joango da Arabar Errioxara

GIZARTEA » Larunbaterako Arabar Errioxara egunpasa antolatu du Urrestillako Herri Batzordeak. Irteerarako 30 lagun inguruk eman du izena. Autobusak goizeko 08:45ean irtengo du, Urrestillako zubi gainetik. 11:00etarako, Herdad de Ugarte upategira iristeko asmoa dute, eta bertan ardo dastatzea egingo dute. Gero, handik Biasterira joango dira, eta bertan bazkalduko dute.

Sansebastianeko karrozen proiektu lehiaketa abian

JALIAK » Datorren urteko San Sebastian Eguneko haurren danborradako karroza diseinatzeako egitasmo lehiaketa parte hartzeako epea zabalik dago; proiektua aurkezteko azken eguna hil honen 30a da. Egitasmoak udaletxeako Festa Batzordearen bulegoan aurkeztu behar dira. Datorren urteko karrozarako Festa Batzordeak proposatu duen gaia: *Azpeitia, 700. urteurrena 1310-2010* da.

Zenbakia

%87,47

■ **beteta urtegia.** Nuarbeko Ibai Eder urtegia %87,47 beteta eta 220,44ko kotan zegoen herenegun. Astebete aurretik, hilaren 9an, berriz, %72,25 beteta eta 216,67ko kotan zegoen.

San Tomas Egunean postua jartzeko izena emateko epea zabaldu dute

JALIAK » Postua jartzeko, beharrezko datuak gaur hasi eta hilaren 25era bitartean udaletxean eman behar dira

N. URANGA

San Tomas Egunean txorizo pintxoak saltzeko postua jarri nahi dutenentzako izena emateko epea zabaldu du Udaleko Festa Batzordeak. Festa egun horretan postua jarri nahi dutenek gaurtik eta hilaren 25era bitartean izena eman behar dute udaletxean. Izena emateko edota informazioa jasotzeko Udal Kultur bulegora deitu daiteke: 943157068.

Zozketa, hilaren 26an

Postuen tokia erabakitze zozketa, berriz, hilaren 26an egingo dute, 20:00etan, udaletxeako areto nagusian.

Baigerak aurten 90 urte betetzen dituzten 11 bazkide omendu ditu

Gizartea » Igandean, Erretiratuen Eguneko bazkarian, 180 lagun inguru bildu ziren

UZZARRIA.COM

Joan den igandean Baigera Erretiratuen eta Pentsionisten Elkarteak, Erretiratuen Asteari bukaera emateko, Erretiratuen Eguna ospatu zuen. Bertan, aurten 90 urte betetzen dituzten elkarte bazkideak omendu zituzten.

Aurten 11 izan ziren omenduak, nahiz eta, horietatik hiru bakarrrik joan ziren. Kiruri jatetxean egin zuten bazkaria. Joandakoak Mari Carmen Arozena, Ignacia Arozena eta Felisa Eizaguirre izan ziren, eta Julian Eizmendi Azpeitiko alkatearen eman zien oroigarria.

Joaterik izan ez zutenak, berriz, hauek dira: Margarita Orbegozo, Juana Maria Azkue, Maria Dolores Agirre, Francisca Azkue, Maria Cabezas, Natividad Enparan, Rosario Amutxategi eta Jesusa Arruti.

Hamaiketakoarekin eta Parrokiako abesbatzaren abestiekin hasi zuten Erretiratuen Eguna. Meza Parrokiaren izan eta gero, Itsasi ko dantzarik aureskua egin zioten omenduei. Ondoren, Kirurin bazkaltzeko 180 lagun inguru elkartu ziren.

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

■ **Garajea.** Garaje bat alokatzen da Azpeitian. Telefono zenbakia: 943812728.

ETXEBIZITZA

■ **Pisua partekatuta, Zarautzen.** Jendea behar da pisu bat partekatzeko Zarautzen, interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 625 238446

ALOKAIRUA

Azpeitian etxe bat garajearekin alokairuan hartu nahi da.

665 702 490 (Nerea)